

**EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN BILERA  
REUNIÓN DEL CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA**

2015-11-11 Lehendakaritza 11-11-2015

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Egun on denoi, eta ongi etorri Lehendakaritzara.

Eskertzekoa da Euskararen Aholku Batzorde honek euskara biziberritzeko lanari egiten dion ekarpena. Ikuspegi ezberdinen kontrastean oinarritutako ekarpena. Euskararen aurrerabideak nahitaezkoa duen adostasuna helburu duen ekarpena.

Eskerrik asko batzordekide guztioi, beraz.

Ziur dakit gure lanak areagotu eta sendotu egingo duela euskararen aurrerabidea.

**Hori da gure erronka.**

Gernikako Estatutuak ireki zuen autogobernuaren bidez ezagutu du euskarak bere historiaren aurrerapen handiena. Aurrerapen hori etengabe areagotu behar dugu. Euskarak atzera egin dezakeelako, oraindik ere, ez baldin badiogu eusten gauzatzen ari garen ahalegin instituzional eta sozialari.

**Zuzen ari gara, argi-ilun eta guzti.**

Aurrera goaz, ez gara gelditu. Ongi ari gara, zalantzak zalantza. Bai Euskadiko herri-aginteok eta, baita ere, euskal gizartea bera.

Hiru zutabeen gainean bermatu dugu euskara biziberritzeko lana: adostasuna, logarritasuna eta progresibotasuna.

Ugari dira printzipio horiek berrestera heldu diren mugarriak. Bost aipatuko ditut:

-Hezkuntza sisteman euskara txertatzeko araudia eta urte luzeetako praktika.

-Helduak euskalduntzeko lankidetzak publiko-pribatua.

-Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia.

-Euskara 21 eztabaida prozesuak eskaini zigun “Itun berri baterantz” dokumentu erabakigarria, adostasun zabalean egina.

-ESEP plana, Batzorde honen beraren lanari esker bere diagnostikoan sakondua eta 2022 arte, indarrean duguna.

**Gobernuaren aldetik, onartu eta bideratu dugu Euskararen Agenda Estrategikoa, “bizikidetzarako hizkuntza bizia” lelopean.**

Gaur, mundu zabalean aitortzen zaio eredugarritasuna euskararen aurrerabideari. Ez soilik lorpenetan, baita aukeratutako modu eta bideetan ere.

Aitorpen horren lekukoa da, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak Europan eskuratu duen aitzindaritasuna.

Europako Batasunaren instituzioek Eusko Jaurlaritzaren ahotik entzun zuten otsailean, eta datorren astean berriz entzungo dute Bruselan, Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orriaren aldarria.

Ezinbesteko urratsa da hori, Europaren eraikuntzan aintzat har dadin hizkuntza aniztasunaren aldeko hizkuntza politika bat. Euskararen eremutik, besteak beste, aspaldian erreibindikatzen ari garenez.

**Europan bezala, Estatuan ere badugu zertan ahalegindurik, hizkuntza aniztasuna sustatzeko, Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Kartak xedatzen duena jarraituz.**

Badugu, eginkizun horretarako, behar besteko lege-araudirik. Lege-araudi horri hizkuntzen eta hiztunen bizikidetzaren ikuspuntutik begiratzea da, hainbatetan eta hainbaten aldetik, falta dena.

Hori frogatu berri du, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak udaletako akten hizkuntzaren inguruko epaia eman duenean. Estatuaren eta Euskadiko herri-administrazio guztien eta bakoitzaren eginkizuna dela euskararekiko ardura, euskararen erabilera bermatzeko ahalegina. Ez dela bidezkoa, bizikidetzaren demokratiko aurreratuaren ikuspegitik, euskarari bizkarra erakustea.

**Euskal gizartearen beraren iritzia da, bestalde, euskararen erabilera sustatzeko ahaleginaren zuzentasun eta zilegitasunaren iturburua.**

Halaxe adierazten digu geroxeago aztertuko dugun Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketatik sortutako txostenak.

Badugu euskararen sustapenean lanean jarraitzeko zoru partekatu zabal bat, gizartearen gehiengo argi bat bere baitan biltzen duena.

Badugu datozen 15-20 urteko perspektiban euskararen bizi indarra areagotzeko egindako gogoeta dokumentua, eta baita lehentasunen marko bat finkatzeko proposamena ere. Dagoeneko hogeit hamar inguru ekarpen jaso dituen.

Badugu, bestalde, euskara biziberritzeko prozesuan funtzio garrantzitsua dagokien euskarazko hedabideen kontsumoaren gaineko informazio sendoa.

**Jakin berri dugunez, eta gaur ere modu xeheagoan ezagutuko dugunez, euskarak ere badu, hizkuntza guztiek bezala, eragin eta balio ekonomiko bat.**

Ez nolana hikoia. Inondik inora ere ez huskeria bat. Oso kontuan hartzekoa den pisu eta eragin ekonomiko bat baizik.

Baina, esan bezala, eutsi egin behar diogu, guztiok elkar hartuta, ahaleginari. Egin ditugun urratsetan atzera egin gabe.

Urrats horietako bakoitzaren emaitzak zuhurtasunez ebaluatuz. Zuzendu beharrekoak ados jarrita zuzenduz. Eta, iritzi guztien balioa errespetatuta, adostasun zabalena biltzen duen norabidean arraunean batera eginez.

**Hori da, hain zuzen ere, Euskararen Aholku Batzorde honen eskuetan jartzen dugun eginkizun nagusia.**

Kontrastea, eta, kontrastearen ondoren, elkarrekin aurrera egiteko irizpideak eskaintzea.

Ahalik eta ahots ezberdin gehienak elkar entzun ondoren, guztion asmoetatik zerbait jasoko duen lehentasun markoa eraikitzea.

Euskara bera bezala, inorena ez, eta, aldi berean, guztiona izango den etorkizunerako lehentasun marko bat.

Horretan dagoelako, besteak beste, gure ahaleginaren eraginkortasunaren giltzarrietariko bat.

Mila esker denoi, beraz.